



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA

www.bmf-fvm.org

<https://www.facebook.com/pages/Bmf-Fvm/597553177057267>

BGME-ko TEKNIKOEN ARTEAN SARTZEKO IRIZPIDEAK

DEIALDIAREN XEDEA:

Federazio honek espezialitate desberdinetako ikastaroak eta formakuntzak burutzeko behar dituen monitoreen lan poltsa bat sortzea (ikus gaur egungo ikastaroen erlazioa, BMF-ko web orrian aldaketak egon daitezke).

Zerbitzu hau larunbat eta igandeetan burutuko da lehentasunez, goizez eta arratsaldez, ikastaro bakoitzaren arabera, etab.

Lan erlazioa, monitoreak lan egindako ikastaro bakoitzerako baino ez da izango.

HAUTAGAIEN BALDINTZAK:

Hautatze probetan parte hartzeko hurrengoa beharko da:

- 1. Adinez nagusia izatea.**
- 2. Federatua egotea.**
- 3. Eskalada edo goi mendian erdi maila edo goi mailako Kirol Teknikari Titulua izatea.**
- 4. Lehen sorospenen ziurtagiria**
- 5. Sexu izaerako delituak ez izatearen Ziurtagiria.**
- 6. Erabiltzaile mailako informatika (GPS programak erabiltzen jakitea, Track-ak sortu eta manipulatzeko, Excel zerrenda).**
- 7. Euskara B1 maila.**
- 8. B gidabaimena.**

Betekizunak eskaera egiterako orduan bete beharko dira. Baldintza hau betetzen ez duten hautagaiak ez dira kontuan hartuko.

ESKAERAK AURKEZTEA ETA HAUTAGAIEN ONARPENA:

Hautatze prozesu honetan parte hartzeko eskaerak 2018ko **urriaren 03tik 12ra** (biak barne) aurkeztu ahalko dira: aurrez aurre BMF-ko bulegoan (Martin Barua Picaza, 27-4. solairu-bulego ordutegian) edo mail bidez (info@bmf-fvm.org).

Epez kanpo aurkeztu diren epeak ez dira kontuan hartuko.



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA

www.bmf-fvm.org

<https://www.facebook.com/pages/Bmf-Fvm/597553177057267>

NAN kopia.

Postua lortzeko eskatzen den Titulazioaren kopia

Federazioko Lizentzia eguneratuaren kopia

Hautatze prozesu honetan adierazitako merituen baloratzeko beharrezko dokumentazioaren kopia eta zerrenda.

Prozesu honetan parte hartzen duten hautagaiek automatikoki izaera pertsonaleko datuen gainean indarrean dagoen araudia jarraituz, burutzen diren argitalpenetan identifikatzeko baimena emango dute.

Hautespen prozesu osoa zuzentzen duen publikitate printzipioa dela eta, hautagaiak bere datuen lagapena baimenduko ez balu, ez da bere eskaera onartuko, organo deitzaileari bere sarbide, zuzentze, ezeztatze eta aurkaratze eskubideak erabili ahal dituela jakinaraziz.

MERITUEN BALORAZIOA:

A. Titulazio akademikoak:

2 mailako KT Goi Mendiko espezialitatea **2 puntu**

2 mailako KT Eskalada espezialitatea Eskalada **2 puntu**

3 mailako KT Goi Mendiko espezialitatea **3 puntu**

3 mailako KT Eskalada espezialitatea Eskalada **3 puntu**

Goi mailako titulazioa edo graduatua eta Kirol eta Jarduera Fisikoko Zientzietan Masterra **puntu 1**

CAP edo gaitasun didaktiko eta pedagogikoan masterra **puntu 1**

Euskara B1 maila **0,25 puntu**

Euskara B2 maila **0,5 puntu**

Euskara C1-EGA maila **0,75 puntu**

Euskara C2 maila **puntu 1**

B. Elkarrizketa pertsonala: gehienez 4 puntuko puntuazioa izango du.

PROZESUAREN GARAPENA:

Parte hartze eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gero, hauek BMF-ko Zuzendaritza Batzordeari helaraziko zaizkio, deialdiko gutxieneko eskakizunak betetzen dutela ziurtatu ondoren, hautagaiek adierazitako merituen balorazioa bi faseetan balora ditzaten. BGME-ko monitore bezala lan egiteko bi faseak gainditzea derrigorrezkoa izango da:

A. "Curruculumaren balorazioa" lehen fasea gainditzeko **2,25 puntu** lortu beharko dira gutxienez. Zuzendaritza Batzordeak adierazitako merituen balorazioa adieraziko du eta Federazioko web orrian argitaratuko da.

B. Elkarrizketa pertsonalaren fasea gainditzeko gutxienez **2 puntu** beharko dira.



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA

www.bmf-fvm.org

<https://www.facebook.com/pages/Bmf-Fvm/597553177057267>

Jarrarian, Zuzendaritza Batzordeak eskatutako gutxienekoa betetzen duten pertsonen erlazioa argitaratuko du, lortutako lehentasun ordenaren arabera. Gutxieneko hau 5 puntu globalekoa izango da, eta 2,25 lehen fasean eta 2 bigarreanean.

Era berean, eskaintza honek ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eta eskatutako gutxieneko puntuetara iristen ez diren eta horrenbestez BGME-ko monitore bezala lan egin ezin duten hautagaitzak argitaratuko dira.

Akordio horren aurka, pertsona hautagaiak erreklamazioa egin ahalko du eta horretarako **hiru** egun baliodun izango ditu argitaratze egun horretatik aurrera, erreklamazio hori Zuzendaritza Batzordeak ebatziko duelarik.